

GOI MENDIETAKO ZINEMALDIAK ITSAS MAILAN

1979tik 1985era egin zen Donostiako Nazioarteko Mendi Zine
Lehiaketak arrasto sakona utzi zuen geurean, baita munduan barrena ere.¹



IAMF-ren 2018ko batzarra Bizkaiko Foru Aldundiko Jauregian

Dariusz Zaluski 2021eko saritua da. Zinemagile poloniar doituia eta alpinista zaildua, 'Ostatnia Gora (The Last Mountain)' filma aurkeztu zuen Bilbon 2019ko Mendi Filmen, bi sari irabaziz: Zuzendari Onenaren saria eta Mendiko Film Onenarena. Goi mendiekin lotutako 15 filma egin ditu, eta alpinista nahiz zinemagile gisa estimu handia du: Krzysztof Wielicki, Denis Urubko, Adam Bielecki, Andrzej Zawada, Simone Moro, Gerlinde Kaltenbrunner, Piotr Pustelnik, Piotr Morawski, eta prestigiozko beste hainbat alpinistekin lan egin izan du.

Zaluski 62 urte ditu, eta bete-betean ari da Himalaiako langintzetan, goi-mendietan. Diembergerrek, 89 urterekin, testigantza eta eskarmentua ditu orain erakusgai, bere jakintzaren kutzak asko baitauka emateko. Broad Peak eta Dhaulagiri gailurretara igotzen historiako lehenak izan ziren espedizioetan protagonista izan zen 1957 eta 1960 urteetan hurrenez hurren. Baina kurrikuluan badu harro egoteko beste arrazoirik: mendiko zinemagile eta idazle emankorra izan da oso, eta horregatik "Zortzimiletako

zinemagile" ezizena eman izan zaio. 2018an jaso zuen austriarrek IAMF Sari Nagusia Bilbon, Mendi Filmen II. Edizioan, Sala BBK aretoan egin zen ekitaldi beroan.

Euskal Herria eta euskaldunak estimuan ditu Kurt Diembergerrek. Zenbatetan jantzi ote du Pedrotxo Otegi eta haren emazte Carmenek behin oparitutako kaikua, Errenteriako eta Donostiako armariak josita zituen hura. Pedrotxo Otegi Eusko-Nafar Alpinismoko Federazioko Presidente izan zen 1957tik 1967ra, Andeetako ikurrinaren aferak garaiko gobernu frankista ernegatu eta Federazioa indargabetua izan zen arte; Angel Sopenaren agintaldiko lekukoa hartu zuen Otegi, eta bere agintaldian mendizaletasunaren ikuspegia berri zuten Euskal Herrian: sona handiko nazioarteko alpinistak ekarri zituen hitzaldiak eta emanaldiak ematera, euskal belaunaldi gazteei eredu eta makulu berriak eskainiz. Izar haietako bat zen Diemberger, geroztik 70. eta 80. hamarkadetan makina bat aldiz Euskal Herrira bisitan itzuli zena.

* Versión en castellano e inglés de este artículo en mendifilmfestival.com

MENDI ZINE LEHIAKETA DONOSTIAN

Donostiako mendi zine lehiaketa izan zuen, esaterako, jomuga kuttunetako bat. Filma berriekin bertaratu zen hainbat aldiz: 'Diamir Les Envoutes de Nanga Parbat', 'K2, La Montaña de los Italianos', 'Everest East Face', 'K2, lo Spigolo Nord'...

1982an epaimahaikide ere izan zen. Lehiaketaren lagun fidel bihurtu zen, eta hala eutsi zion Donostiako sugarra 1985ean itzali zen arte.

Zazpi urtez mendizale munduko erreferente ziren alpinista eta mendizaleek hartu zuten parte Donostiako lehiaketan. Inspirazio eta informazio iturri bihurtu ziren saioretara joaten ziren milaka ikuslerentzat. Kurt Diemberger, Sebastián Álvaro, Jean Afanassieff, Renato Casarotto, Julie Tullis, Bernard Germain, François Valla, Gilles Chappaz... hainbat izan ziren bertatik bertara ikusi ahal izan ziren mendizale munduko pertsonaia ezagunak Donostiako agertokietan: Miramar eta Astoria zinemak, nahiz Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialesko eta Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalesko aretoak.

35 mm-ko eta 16 mm-ko filmen garaia zen, eta baita Super 8-a mendian baliabide arin eta erabilgarri bat bezala ikusten hasi zenekoa ere. Donostiako lehiaketa izen handiko egileen pasarela (Leo Dickinson, Jean Marc Boivin, Denis Ducroz, Gerhard Baur, Patrick Vallençant...) eta bertako talentuen (Javier Garreta, Suso Rodriguez, Jordi Pons, Martin Garcia Garmendia...) erakusleihoa bihurtu zen.




Dariusz Zaluski zuzendari eta mendizalea, 2021eko IAMF sariduna

IAMF SARITUAK ETA EUSKAL HERRIA

Donostian 80ko hamarkadan filmak aurkeztu zituzten hainbat egilek, IAMFren aitortza jaso dute gerora, milurteko berrian: esaterako, Gerhard Baur-ek estreinatu zuen IAMF Grand Prize saria 2002an; Donostian lau filma aurkeztu zituen zinemagile alema-

niarrak eta haietako batekin 1983ko Urrezko Aritza irabazi zuen, 'Der Weg Ist Das Ziel - La Tragedia del Eiger de 1936' filmarekin. Leo Dickinson saritu zuen IAMF-k 2003an, eta Donostian bi Urrezko Aritza irabazi zituen britainiarrak, 'Dudh Kosi - Relentless

Kurt Diemberger eta Julie Tullis 1985ean Donostiako mendi zinema lehiaketan · DAVID HERNANDEZEN ARTXIBOAN





BBK Mendi Film Bilbao-Bizkaia jaialdiak publiko erantzun bikaina izan ohi du

River of Everest' (79) eta 'Eiger' (84) filmekin. Sebastián Álvarok 2008an jaso zuen IAMF saria, denboraren joanean "Al Filo de lo Imposible" telebista saioarekin, mendiko zinemari sekulako ekarpena egin zion zuzendariak. Azkenik, 1983an Donostiako lehiaketako epaimahaikide izen zen Gilles Chappaz zinemagile eta Montagnes Magazine aldizkariko erredaktore frantziarrak, 2017an jaso zuen IAMF saria.

Sebastian Alvaro Bilboko Sala BBK-ko erakusketako argakiez, mendiez, inguratuta



1979tik 1985era egin zen Donostiako Nazioarteko Mendi Zine Lehiaketak arrasto sakona utzi zuen geurean, baita mundu zaballean ere. Garai hartan Italiako Trentoko zinemaldia zen erreferentzia, 1952an sortua, baita Suitzako Les Diablerets ere, 1969an abiarazi zutena. Mendiko espedizio bat bailitzan, Gregorio Ariz izan zen Trentoko zinemaldia bisitatuz lehen ikuskaketak egin zituen, Euskal Herriko Mendizaleen Elkargora ekarri hango berriak, eta Antxon Bandres EHMEko presidente zela, 1978ko urriaren 28an euskal mendi elkarteetako presidenteen batzarrean aurkeztu zen publikoki Donostian zinema lehiaketa bat antolatzeko egitasmoa. Ordurako David Hernandezi egin zitzaion ardura hartzeko proposamena, eta honek Iñaki Egaña gonbidatu zuen soka-taldea osatzeko. 2018ko abendurako bete-betean ari ziren ideia hura gorpuzteko lanetan, eta Trentora ere jo zuten informazio eta pista eske. Donostiako nazioarteko mendi zine lehiaketako zuzendaria izan zen Hernandez, eta zuzendari teknikoa Egaña, lehen sei ediziotan, eta aholkulari lanetara erretiratu ziren lehiaketaren zazpigarren eta azkeneko edizioan, 1985ean.

Zazpi urtez Donostia, eta Euskal Herria, mendi kulturaren ardatz bihurtu ziren, nazioartean Trento eta Diableretsen pare jartzeraino, edota zenbaiten ustez haien aurretik ere kokatuz. Debozioz betetako ikusleen emaria eta berotasuna azpimarratzen ziren, geroz eta gehiago ziren beren filma berriekin euskal kostaldera etorri nahi zuten zinemagileak. Mendiko zinemaren industrian Euskal Herria nabarmendu egin zen.

Mendi zinemak izan zuen beste agertokirik Donostiako lehiaketa desagertu ondoren ere: Gipuzkoan bertan, lehiaketa izaerarik gabe, Mendi Zinema Zikloa antolatu zen (1987an hasita), Gasteizen Mendi eta Eski Zinema Astea (1980an sortua), Iruñean Anaitasuna Mendi Jardunaldiak (1980), Bilbon BBK Mendiko Jardunaldien Astea (1994), eta herriz herri, mendi elkarte elkarte, hainbat ekimen mendiko kulturaren inguruan.

MENDI FILM 2008TIK GASTEIZEN ETA BILBON

Mendi Film Festival, 2008an sortu zen, Gasteizen, lehiaketa formatuan, nazioarteko mendi zinemagintza onena eta berriena, zinemagile sonatuenak eta bogan zeuden atletak biltzeko euskal jomuga berria. Lau edizioen buruan, 2012an, Bilbora lekualdatu zen, eta harrez geroztik bertan ospatzen da, abenduan.

Mendi Filmen, jada, IAMF lehen lerroan kokatzen da, harreman sendoa dago bien artean. Mendi, 2011tik da elkargoko kide, eta Jabier Baraiazarra zuzendaria, IAMFko presidentea ere bada 2018az geroztik. Denboran urrunekoak eta elkarrekin lotura gabek izanik ere, Donostiako lehiaketak eta Mendi Filmek, detaile asko dituzte amankomunean. Mendi ere IAMF Saria jasotako zinemagile askok parte hartu izan dute, maiz Gasteiza edo Bilbora bertaratu: Keith Partridge, Lapidie sendia (Anne eta Erik bikotea eta Véronique alaba), Alastair Lee, Pavol Barabas, Michael Brown, Sender Films eta Sherpas Cinema ekoiztetxeak...

Mendi zinemagintza bultzatu eta sustatzeko aterpeak dira IAMF eta Mendi Film, zentzu globalean bata eta Euskal Herriatik abiatuta bestea. Dariusz Zaluski eta Kurt Diemberger dira horren testigu freskoenetakoak, edota Sebastián Álvaro bera ere bai: aurtentzen, abenduaren 3tik 12ra egingo den BBK Mendi Film Bilbao-Bizkaia jaialdiaren The Walk On Project Saria hark jasoko du, mendiko balioak lau haizetara zabaltzen egindako lanaren aitortzan. Chris Bonington, Peter Habeler, Josep Manuel Anglada eta Eli Verges, Nives Meroi eta Romano Benet, eta Juanjo San Sebastian ageri diren zerrenda distiratsura batuko da.


Goi mendietako zinemaldiak itsas mailan, "A High Mountain Film Festival at Sea Level", lehen bezala orain ere, mendi zinemagintzako ordezkari onenen bilgune izaten jarraitzen du Euskal Herrian.

Jimmy Chin Oscar sariduna Metro Bilbon egindako argazki erakusketan



ARITZA – ROBLE DE ORO


- 1979: 'Dudh Kosi - Relentless River of Everest' Leo Dickinson
- 1980: 'Annapurne, Premiere 8000 a Ski' Bernard Germain
- 1981: 'Aventure au Cervin' Jean Marc Boivin
- 1982: 'Ou Vas Tu Basile?' Denis Ducroz
- 1983: 'Der Weg Ist Das Ziel - La Tragedia del Eiger de 1936' Gerhard Baur
- 1984: 'Eiger' Leo Dickinson
- 1985: -HUTSIK-



Leo Dickinson zuzendariaren 'Dudh Kosi - Relentless River of Everest' filmak irabazi zuen Donostiako lehiaketako lehen edizioa

MENDI FILM SARI NAGUSIA – GRAN PREMIO

- 2008: 'Cerro Torre: Ritmo Latino en la Cara Oeste', Ramiro Calvo
- 2009: 'Au de la des Cimes', Remy Tezier
- 2010: 'The Pinnacle', Paul Diffley
- 2011: '180° South', Chris Malloy
- 2012: 'Erhard Loretan, Respirer l'Odeur du Ciel', Benoit Aymon
- 2013: 'Beyond the Edge', Leanne Pooley
- 2014: 'Valley Uprising', Peter Mortimer, Nick Rosen, Josh Lowell
- 2015: 'Unbranded', Phillip Baribeau
- 2016: 'Freedom Under Load', Pavol Barabas
- 2017: 'Dirtbag. The Legend of Fred Beckey', Dave O'Leske
- 2018: 'Becoming Who I Was', Moon Chang-Yong & Jin Jeon
- 2019: 'Treeline', Jordan Manley
- 2020: 'Hillary - Ocean to Sky', Michael Dillon



'Valley Uprising' filma, Sender Films ekoiztetxearena